

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizen ekintzaileen jarduera sustatzeko laguntza ekonomikoaren udal programaren “2023ko ekintzaileentzako beka” deialdi publikoa eta berariazko oinarri arautzaileak

2022ko urriaren 14an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2023ko dirulaguntza-deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2022ko azaroaren 7ko ALHAOn (127. zenbakia) argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honek aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2023ko martxoaren 3an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak “2023ko ekintzaileentzako beka” udal-programaren deialdi publikoa eta berariazko oinarri arautzaileak.

Erabaki horrek administrazio-bidea agortzen du, eta berorren kontra zuzenean aurkez daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitezke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte. Guztia ere, Administrazio Publikoaren Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deriztoteen beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berariazko oinarri arautzaileen publikotasunaren inguruan araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Ekintzaileentzako beka.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Beren enpresa-proiektua garatzen duten bitartean ekintzaileei laguntzeko eta kultura ekintzailea sustatzeko laguntza ekonomikoak norgehiagoka baliatuz emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea irabazi ekonomikoak helburu sozial batekin edota ingurumenaren arloko helburu batekin sortzea izan beharko dute xede ekintzaileek.

Era berean, ekintzaileek martxan jartzen dituzten ekimenen iraupen-tasa hobetzea lortu nahi da deialdi ireki honen bitartez Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 59.artikulua, eta gizartean eta ingurumenean eragin positiboa izango duten proiektuen sorrera sustatzea.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek. Beka emateak eta jasotzeak ez du berekin ekarriko bekadunaren eta enpresa-proiektua bideratzen deneko entitate edo zentroaren arteko inolako lan-loturarik, ezta haren eta Udalaren arteko ere.

3. oinarria. Onuradunen betebeharrak

Honako hauek bete beharko dituzte onuradunek eskabidea aurkezten duten egunean:

- Adinez nagusi izatea.
- Vitoria-Gasteizen erroldatuta egotea.
- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.
- Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari izatea.
- Ekonomia-Jardueren gaineko Zergan alta emanda ez egotea, eta norberaren kabuz ekonomia jarduera bat gauzatzen ez aritzea. Garapen-fasean dauden proiektuak bakarrik aurkeztu ahal izango dira, ekintzaileen ekimen berriak definitzen eta abiarazten laguntzea baita deialdiaren helburua.
- Aurreko urteetan beka-onuradun ez izana.

4. oinarria. Baliabide ekonomikoak

2023ko udal aurrekontuko 08.21.4331.4.8949 partidaren kontura Ekintzaileentzako beka finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak 90.000,00 eurokoa da partida horren zuzkidura.

5.oinarrian adierazitako lehen epearen barruan aurkeztutako eskabideek 45.000,00 euroko aurrekontua izango dute eskuragarri; bigarren epean aurkeztutakoek beste horrenbeste (45.000,00 euro).

Lehen epeko eskabideak ebatzi eta dirulaguntzak ematen direlarik, baldin eta zegoen aurrekontu osoa agortu ez bada, baliatu gabeko diru-kopurua bigarren epekoari gehituko zaio berariaz utziko da hala jasota hautatze- eta jarraipen-batzordearen aktan.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitako zenbatekoez gain, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak 2023an kudeatzen duen "Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntzen udal programatik" etorritako kopuru gehigarri batekin handitu ahal izango da dirulaguntza horien finantzaketa. Kasu horretan, dagokion gastu-dosiera tramitatu ondoren beste deialdirik egin gabe, ALHAOn argitaratuko da azkenean erabilgarri izango diren kredituen berri, laguntzak emateko ebazpenaren aurretik horrek ez duen berekin ekarriko eskabide berriak aurkezteko beste epe bat irekitzea, ezta ebazteko epea berriro kontatzen hastea ere. Deialdiko kredituaren handitze hori inolaz ere ezingo da izan eskatzaileen eskubideen kaltetan, eskabideak aurkezteko lehen epekoak nahiz bigarrenekoak izan. (Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 59. artikulua).

5. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkezteko epea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek alde aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da.

Deialdi honek bi epe izango ditu eskabideak aurkezteko:

- Lehen epea, oinarri hauek indarrean jartzen diren egunetik 2023ko ekainaren 15era artekoa.
- Bigarrena, 2023ko ekainaren 16tik irailaren 29ra artekoa.

6. oinarria. Prozedura

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, aurkezten diren proiektuen arteko alderaketa egingo da. Eskabideak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena egingo dio organo instrukzio-egileak organo eskudunari, laguntzak eman edo ukatzea proposatzen duen adierazten duelarik, eta, ematea proposatuz gero, baita zenbatekoa ere.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauek arautzen diren beka izapidetzea. Hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da horretarako, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak, Enpresen Zerbitzuko buruak eta Merkataritza Zerbitzuko buruak osatua.

Halaber, tutoretzaren arduraduna izendatuko du batzordeak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikarien artean. Batzorde teknikoak proposamena egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko dira ekintzaileentzako beka, horretarako ahalmena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

7. oinarria. Ebazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura. Lehen epeko eskabideei dagokienez, oinarri hauek indarrean jartzen diren egunetik kontatuko da epe hori. Bigarren epeko eskabideei dagokienez, berriz, eskabideak aurkezteko bigarren epe horretako lehen egunetik.

8. oinarria. Balioespen-irizpideak

- Jardueraren nahiz enpresa-kudeaketaren inguruko prestakuntza teknikoak: gehienez 15 puntu.
- Sustatzaileak jardueraren inguruan duen esperientzia profesionala eta proiektuan zenbateraino murgilduta dagoen: gehienez 15 puntu.
- Proiektuaren zehaztasuna, argitasuna eta kalitatea: gehienez 15 puntu.
- Proiektuaren bideragarritasun teknikoak eta ekonomikoak: gehienez 15 puntu.
- Lan-planaren zehaztasuna, koherentzia eta edukiak: gehienez 10 puntu.
- Interes maila, sustapen ekonomikoari dagokionez: Honelako kontuak aintzat hartuko dira: enplegu-sorkuntzaren aurreikuspena, proiektuaren berrikuntza-maila, jarduera ekonomiko berriak, sorkuntza-industriak, ekonomia soziala, eta emakumeen ekintzailetza emakumeen presentzia txikiagoa den sektoreetan: gehienez 30 puntu.

9. oinarria. Proiektuak balioestea eta dirulaguntza kalkulatzeko

Ekintzaile baten ekimenak beka jasotzerik izan dezan, gutxienez 65 puntu lortu beharko ditu, 100etik.

Bekaren gehieneko zenbatekoa 2.500,00 eurokoa da, eskatzaile bakoitzeko. 90 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskatzaileek 2.500,00 euro eskuratuko dituzte. Gutxienezko puntuazioa 65 puntu lortzen dutenek, 1.000,00 euro. 66 puntutik 89ra bitartean lortzen dituzten proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie, bekaren zenbatekoa kalkulatzeko. Dagoen kreditua nahikoa gertatzen ez bada, murrizketa proportzionala aplikatuko zaie proiektu guztiei, 65 puntu edo gehiago lortu dituzten eskabide guztiei erantzute aldera.

10. oinarria. Ordaintzeko modua

Dena batera ordainduko da beka, deialdia ebatzi ondoren.

11. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza-eskabideei:

- Eskabide-orria eta zinpeko aitorpena (I. eranskina).
- Nortasun-agiriaren kopia.
- Enpresa-proiektua (ikus eredu II. eranskinean).
- Lan-plana, non aurreikusitako jarduerak, lortu nahi diren helburuak eta egutegia zehaztu beharko baitira (III. eranskina).

– Ekintzaileei laguntzen esperientzia duen entitatereen batek proiektua bideratu bitartean tutoretza-lanak egiteko konpromisoa bere gain hartzen badu, konpromiso hori adierazten duen agiria, eta aurreikusitako tutoretza-lanen programa.

12. oinarria. Akatsak zuzentzea

Beka-eskabideek ez badituzte betetzen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 66. artikuluan xedatutako baldintzak, edo nortasun-agiria edota deialdi honen 11. oinarrian adierazitako lan-plana eransten ez bazaie, 10 eguneko epea emango zaie eskatzaileei akatsak konpondu edo falta diren nahitaezko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko ezen, hala egin ezean, eskabidea bertan behera utzitzat joko dela.

13. oinarria. Onuradunen betebeharrak

Betebehar hauek izango dituzte beka jasotzen dutenek:

– Burututako jarduerak eta lortutako emaitzak zehazten dituen oroitidazki sinatua aurkeztea (IV. eranskina), beka eskabidean aurkeztutako lan-planaren jarraipena egiterik izan dadin. Eskabideak aurkezteko lehen epean aurkezten diren proiektuen oroitidazkiak irailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira, eta bigarren epean aurkezten direnenak, berriz, abenduaren 15a baino lehen.

– Beka emateko oinarri izan den jarduera-programa lan-planean adierazitakoa gauzatzea, enpresa-sorkuntzaren eta -kudeaketaren alorreko prestakuntza-jarduerak barne.

– Emandako beka dela eta udalak egiten dituen egiaztatze-jardueren menpe jartzea.

– Helburu bera duen beste bekaren bat eskatu nahiz eskuratuz gero, edo beka emateko orduan aintzat hartutako edozein egitate edo zirkunstantzia aldatuz gero, jakitera ematea.

14. oinarria. Bateriaezintasunak

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publikok edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

Nolanahi ere, eskuratzen diren dirulaguntzen/laguntzen baturak ezingo du gainditu dena delako jardueraren kostu garbia, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza edo baliabiderekina batera.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

15. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Deialdi hau dela-eta egiten diren jarduketak gauzatzean, une oro beteko da datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoa.

16. oinarria. Publikotasuna

Udalaren webgunean argitaratuko dira ematen diren dirulaguntza eta laguntzak www.vitoria-gasteiz.org, zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak zehaztuta DBLOeko irizpideak kontuan harturik, hala xedatzen baita Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen II. kapituluko 8.c artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeeri buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen II. kapituluko 55.i artikuluan.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 3an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO*

I. eranskina: eskabide eredia

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/96/52/59652.pdf>.

II. eranskina: enpresa-proiektuaren eredia**1. Proiektuaren aurrekariak.**

Ideiaren jatorria eta bilakaera.

Proiektua zein maila edo fasetan dagoen. Egindako ekintzak.

2. Sustatzaileak.

Curriculum vitae xehatua. Ezagupen teknikoak zehaztu, baita enpresa kudeaketaren alorrekoak ere. Sustatzaileak proiektuan zenbateraino murgilduak dauden azaldu.

3. Negozioaren egokitasunaren ebaluazioa.

Produktu edo zerbitzuaren deskribapena. Alderdi berritzaileak.

Merkatuari buruzko ezagupenak.

Sektorearen egoera eta joerak.

Izan litezkeen bezeroen ezaugarriak.

Konkurrentziaren ezaugarriak. Abantaila eta desabantailak, konkurrentziaren aldean.

Proiektuaren indarguneen eta izan ditzakeen ahulguneen balioespena.

4. Ekonomia- eta finantza-plana.

Aurreikusitako inbertsioen balioespena.

Finantzaketa-iturriak.

Diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena. Errentagarritasun atalasearen kalkulua.

5. Ondorioak.**III. eranskina: finantzaketa-plana****1. Eskabidea aurkeztu aurretik egindako jardueren zerrenda.****2. Aurreikusten den hileko jarduera-egutegia, honela banatuta:**

– Prestakuntza-ekintzak.

– Aholkularitza.

– Jardunaldi eta ekitaldietara joatea.

– Produktu edo zerbitzua diseinatu eta garatzearekin zerikusia duten jarduerak.

– Merkatu-azterketarekin, bezero-bilaketarekin, marketin-planarekin eta produktu edo zerbitzuaren promozioarekin zerikusia duten jarduerak.

– Hornitzaileak hautatzeko, kokalekua aukeratzeko eta hura egokitzearekin lotutako jarduerak.

– Bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta proiektua finantzatzearekin zerikusia duten jarduerak.

– Legezko izapideak betetzeko jarduerak.

– Enpresa abian jartzeko aurreikusitako bestelako jarduerak.

3. Enpresa abian jartzea aurreikusten den data.

IV. eranskina: bukaerako memoria

1. Egindako jarduerak, honela banatuta:
 - Egindako prestakuntza-ekintzak.
 - Jasotako aholkularitza.
 - Jardunaldi eta ekitaldietara joatea.
 - Produktu edo zerbitzua diseinatu eta garatzearekin zerikusia duten jarduerak.
 - Merkatu-azterketarekin, bezero-bilaketarekin, marketin-planarekin eta produktu edo zerbitzuaren promozioarekin zerikusia duten jarduerak.
 - Hornitzaileak hautatzeko, kokalekua aukeratzeko eta hura egokitzeko egindako jarduerak.
 - Bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta proiektua finantzatzearekin zerikusia duten jarduerak.
 - Legezko izapideak betetzeko egindako jarduerak.
 - Enpresa abian jartzeko egindako beste jarduera batzuk.
2. Lan-planean aurreikusitako jarduerekin alderatzea. Azaldu aurreikusitako jarduera-planaren betetze-maila.
3. Lortutako emaitzak. Azaldu aurreikusitako helburuak lortu diren, eta enpresa eratu den.
4. Prozesuko oztopo eta zailtasunak.
5. Proiektuaren etorkizuna.
6. Enpresaren harremanetarako datuak, eratu bada.
7. Data eta sinadura.